

auzoz auzo • auzoz auzo • auzoz auzo

herrera

Kilikariak, 24 ordu saltoka

San Sebastian eguna ospatzen den honetan, badira egun osoa lanez gainezka pasa behar dutenak ere, Kilikariak taldearen kasua lekuko.

Auzoko Kilikariak fanfarrean diharduten 35 gazteek ez dute atsedenerako astirik izango. San Sebastian egunean 24 orduz musika tresnen laguntzaz kalean gora eta behera ibili beharko dute.

Bezperatik hasita

Fanfarreak 19ko gauean hasiko du eguna, gaueko 23.00etan fanfarrearen lokalean bildu ondoren 23.45etan Euskal-Giroa elkartera hurbilduko dira gaueko 24.00etatik 2.30-etara auzoko kaleetan ibiliko den daborradari musika jartzeko asmotan.

Urtarrilaren 20ko lehen ordutan, 7.00etan, Kresalako danborradarekin batera, Parte Zaharreko kaleetan arituko dira.



19-20 urte
bitarteko
gazte hauei,
lana gogorra
izan arren,
ondo
pasatzeko
gogo
oraindik
geratzen zaie.

Hori bai, 9.00etan hainbeste eskertzen den gosaria izango dute 10.00ak aldera bukatzeko.

Lo kuluxka egin ondoren, arratsaldeko 16.00etan Antiguara abiatuko dira haur danborradari erritmoa ipintzeko xedez. Otorrutxo txiki bat jan ondoren, 18.30etan bukatuko dute eguna.

Egun gogorra

Fanfarrearen partaide-

ak gogoan dute batez ere horrelako egunak eskatzen duen seriotasuna eta 12-14 kilotako helikoia darman lankide gizarajoa.


Hilabetez abesti berdinak jo ondoren pieza guztiak buruz dakizkite: Tatiago, Gau Bilera, Diana, Polka, Retreta, Iriarena eta Donostiako Martxarekin osatuko dute egun honetako musika errepertorioa. Fanfarrearen partaideak diren Txomin eta Daviden-

tzat gorrotogarri bihurtzen dira batez ere Tatiago eta Gau Bilera piezak 20-25 aldiz errepikatzen diren abestiak baitira.

Ezpaineko mina ere jasangaitza gertatzen da, hainbeste orduz jotzen ibili ondoren ezpaineko azal sentikorra ireki eta izugarritzko zauriak egiten zaskie musikariei, dena den jotzen jarraitu behar.

LARRAIZ GARMENDIA (TFNOA.: 391267)

ERRASTI DEKORAZIOA



Erakusketa:
Extremadura kalea 11
20015 • DONOSTIA
Tfnoa. eta faxa: 27 19 81
Erakusketa eta lanegia:
Elias Salaberria 22
20100 LEZO
Tfnoa. eta faxa: 52 49 50



Gorputz eta aurpegi tratamenduak
Depilazio elektrikoa eta beroan egindakoa



OTXOKI

ALBAINPARRITZA KLINIKA

Urgentziak: 900.28.28.28

Abonatuak: 22.48.26


Lizardi bidea 4 • Tfnoa.: 27.48.85 • DONOSTIA

INTXAURRONDO BERTAN

BIDEOKLUB OTXOKI GOXOKIAK

Jose Maria Lizarrondo Quesada

Sagastieder 8, behean (sarrera Galizia kalef)l
Tfnoa.: 29 11 24 • DONOSTIA



Ezkontzetarako lore-sortak
Lore natural eta lehorrez egindako zentruak

Baso-txiki 17 • Intxaurrenondo • Tfnoa.: 32 20 30